

Euskadin osasunean gastatzen diren hamar eurotatik hiru finantzazio pribatuarena da

Unai Martín

”

Osasun zerbitzu eta produktuengatik etxeetan egiten den zuzeneko ordainketak eratzten du finantzazio pribatuaren partida nagusia

Iradokitutako aipua: MARTIN, U. (2020) *Euskadin osasunean gastatzen diren hamar eurotatik hiru finantzazio pribatuarena da*. OSEKI Osasun eskubidearen aldeko ekimena-Iniciativa por el derecho a la salud. Eskuragai: <https://www.oseki.eus/eu/arloak/euskadiko-egoera/osasun-sistema/>



Osasun gastuaren finantzazioaz hitz egitean, osasun zerbitzuak eta osasun zainketa izateko eta ordaintzeko behar diren diru eta baliabideak lortzeko formulei buruz ari gara. Horien pribatizazioa, hots, formula pribatuen bidezko finantzazioa da herritarrentzako osasun pribatizazioaren mehatxu nagusienetakoa (*ikus Zergatik da osasunarentzat mehatxu osasun pribatizazioa?*).

Euskadiren kasuan, 2016. urtean (hori da datuak ditugun azken urtea) osasun finantzazioaren %29,7 esku pribatukoa zen. Horren zati handi bat, zehazki %79,8, etxeek zerbitzua jasotzeagatik edo botikak edo osasun materiala erostea-gatik zuzenean egindako ordainketari zegokion. Bestalde, gastu pribatuaren %20,2 borondatezko ordainketa sistemetatik zetorren, gehien batean osasun aseguru pribatuek eta, neurri txikiagoan, enpresa pribatuek egindako gastutik. Borondatezko ordainketa sistema horiek osasun gastu osoaren %6,0 izan zen.

Era horretan, Euskadin osasunaren finantzazio pribatua 1.834 milioi eurokoa izan zen, guztira, 2016an. Horietatik, 1.464 milioi euro etxeetako zuzeneko gastuetatik etorri zen eta 370 milioi, berriz, borondatezko ordainketa-sistematik (osasun aseguru pribatuak eta enpresa pribatuak).

1. TAULA. EUSKADIN OSASUNEAN EGINDAKO GASTU ARRUNTA, FINANTZAZIO MOTAREN ARABERA. 2016

FINANTZAZIO MOTA	EUROAK (MILATAN)	GASTU GUZTIAREN GAINEKO %	FINANTZAZIO MOTAREN GAINEKO %
GASTU ARRUNTA, GUZTIRA	6.171.538	100%	
FINANTZAZIO PUBLIKOA	4.336.919	%70,3	
FINANTZAZIO PRIBATUA	1.834.619	%29,7	
· BORONDATEZKO ORDAINKETA-SISTEMAK	370.113	%6,0	%20,2
· ETXEETAKO ZUZENEKO ORDAINKETAK	1.464.506	%23,7	%9,8

ITURRIA: EGILEEK EGINA EUSTAT-EN DATUETAN OINARRITUTA (OSASUN KONTUA)


Gastuaren eginkizunari erreparatuz gero, azpimarratzekoa da produktu medikoen finantzazioan pribatizazioak lortu duen maila; horien finantzazioa etheen esku dago, hein handi batean. Euskadin produktu farmazeutikoetan eta bestelako osasun materialean 2016an izandako gastuaren %50 baino gehiago modu pribatuan ordaindu zen. Finantzazio pribatua handiagoa izan zen material terapeutikoan eta iraupen luzeko bestelako osasun materialean (betaurrekoak eta ikusmenerako bestelako produktuak, material ortopedikoa eta protesiak, entzuteko lagungarriak, etab.), etxeetan ordaindu baitzen zuzenean gastuaren %93,7. Prebentzio zerbitzuen finantzazio pribatua da nabarmentzen den beste gauza; kasu horretan, %33,9 esku pribatuek finantzatu zuten, batez ere enpresek.

Sendatzezko osasun asistentzia bezalako beste eginkizun bat modu pribatuan finantzatu zen %25ean, %6,3 aseguru eta enpresa pribatuen bidez eta %18,5 etxeek egindako zuzeneko ordainketen bidez. Alor horretan, azpimarratzekoa

da aseguru eta enpresa pribatuek ospitaleko asistentzian duten parte-hartzea, %10,0ra iristen baita, eta ambulatorko asistentzian etxeek zuzenean ordaindutako kopurua, %32,9 alegia, batez ere hortzetako asistentziagatik.

Osasun laguntzazko zerbitzuetan ere aseguru pribatuek eta enpresek finantzatzutako gastua nabarmentzen da, batik bat irudien bidezko diagnostikoetan (%22,5) eta laborategi klinikoetan (%14,1).

1. GRAFIKOA. EUSKADIN OSASUNEAN EGINDAKO GASTU ARRUNTAREN PORTZENTAJEA, EGINKIZUNEN ARABERA MODU PRIBATUAN FINANTZATUA. 2016




ITURRIA: EGILEEK EGINA EUSTAT-EN DATUETAN OINARRITUTA (OSASUN KONTUA)

Asistentzia maila ezberdinen kontsultak kontuan hartuz gero, hortzetako kontsulten finantzazio pribatuaren portzentajea gailentzen da, hamarretik bat baino ez baita finantzazio publikoaren bidez egina. Halatan, mota horretako kontsulten %84,5 etxeetako zuzeneko ordainketen bidez finantzatzen da. Etxeetan zuzenean egindako ordainketa hori ia hutsaren hurrengoa da gainerako kontsultetan, arreta espezializatuan izan ezik, %4,3 baita.

Bestetik, osasun aseguru pribatuak arreta espezializatura jotzen dute gehienbat; kontsulten %15,7 eurek finantzatzen dute mutuekin batera. Aipatzekoa da baita finantzazio mota hori ospitaleratzeetan, %9,2 baita, eta larrialdietan, %8,4. Gainerakoetan, %5 inguruan dabil finantzazio mota horren portzentajea.

1. GRAFIKOA. FINANTZABIDEA ASISTENTZIA MAILA ETA MOTAREN ARABERA. EUSKADI 2017/2018



■ PUBLIKOA
 ■ FAMILIEN ORDAINKETA ZUZENAK
 ■ ASEGURU PRIBATUAK/MUTUAK

ITURRIA: EGILEEK EGINA OSASUN SAILAREN DATUETATIK (EAEKO OSASUN INKESTA) ABIATUTA



ARGITARATUTA: Leioan, Espainian

EDITOREA: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)